

**LIBURUA****Izenburua:** 'Olentzero'.**Testua eta marrazkiak:** Haize Othondo.**Orrialde kopurua:** 42 orrialde, koloretan.**Argitaratzailea:** Ikas.**Haize Othondo**

EGILEA

## «Olentzeroren sinboloa ulertu nuelarik, pasarazi nahi izan nuen mezua»

**E**man al dezake beldurra Olentzerok? Ez al da, ba, Eguberrietan haur txintxo-ei opariak ematen dizkien ikazkin bihotz-onekoa? Edo, akaso, herritarrek baztertutako ikazkin zikin eta barkartia al da? Haize Othondok historian atzera egin du, *kamishibai* itxurako liburuan, hasierako Olentzero nolakoa zen erakusteko.

**Liburuko Olentzero ez da hurrek ezagutzen duten bera, herritarrek baztertutako ikazkina baizik.**

Olentzero ikazkina, aro aldaketa kantatzen duen ikazkina –«olen aro»–, usaian aurkeztu zaiçu Eguberrietan etortzen den bizarzuri euskaldun baten gisa, edo haur gaiztoei ikatza oparituko dion basajaun gisa. Nik hala ezagutu dut betidanik, behintzat.

Duela zenbait urte, etnologo batekin elkarrizketan nintzela, Olentzeroren sinboloa ezagutu nuen, eta mendez mende transmititu den poesia ulertu nuen.

**Herritarrek onartua ez izan arren, berri onaren iragarle da oraindik ere.**

Olentzero ikazkina baztertua den gizona da, bi arrazoiendako: herritarrendako ezezaguna delako –oihanean bizi baita, bakarrik, ikatzaren lantzen– eta basajaun zikina delako –ikatza landuz gero, bi-

saia eta eskuak beltzak baititu–. Olentzero, orduan, beldurrari lotua dago.

Garai hartan, euskaldunek, naturaren elementuei eta naturaren zikloari leku garrantzitsua ematen zieten, haien bizitzaren orekatzeko eta ulertzeko modu bat zelako. Euskaldunek bi sasoi zituzten: uda eta negua. Uste zuten sasoiak joan-etorri bat egiten zutela, ez mugimendu borobila.

Sasoi aldaketa sinbolizatzen du Olentzerok. Neguan ilun eta hotz egiten du, sasoi beldurgarria da. Udaren etorreraren ospatzeko, Olentzeroren pertsonaiekin hasten dira bestak. Horren ondotik, inauteriak, suteak, eta abar datoz.

**Testuaz gain, ilustrazioak ere zeuk egin dituzu, ezta?**

Olentzeroren sinboloa ulertu nuelarik, segidan pasarazi nahi izan nuen mezua, izugarri poetikoa antzeman nuelako. Orduan, marrazkiak egiten hasi nintzen. Arte Ederak landu nituen, ilustrazioen egiteko gai senditzen nintzen, baina ez ipuin baten idazteko. Azkenik, nire inguruan nehor ez nuen, nik nuen idatzi.

**Antzeko egituraketa dute orriek: testua ezkerrean eta marrazkiak eskuinean.**

Ilustrazioari garrantzi handia ematen diot. Hitzek edo marrazkiek informazio bera ematen dute, baina modu desberdinean. Horretarako, izugarri garrantzitsua da biak bereiztea, duten komunikatzeko moldea zinez agerian emateko.



Bestalde, ikusgarri batean pentsatu nuen, ilustrazioak antzerki japoniar baten bidez –*kamishibai* izenekoa– erakutsi nahi nituen. Antzerki ttipi horrekin, marrazkiak erakusten dira, eta kontalariak ipuina hurrei kontatzen die. Idatzirik, marrazkien gibelean denez, ez du marrazkia tratatzen.

Proiektua, aurkezteko molde horrekin pentsatua izan zenez, zaila ikusten nuen hitzak marrazkien gainean pausatzea. Orduan, *kamishibai* baten gisara eraiki genuen, idatzia, eta marrazkiak bereizirik.

**Kolore zuriak garrantzi handia dauka.**

Zuri eta beltzetik, orrialde koloretzuetara doa liburua. Negutik udaberrirako bidea egingo balu bezala. Landua izan den berezitasun bat izan da, batez ere, bi sasoi horien artean argiak eta koloreek desberdintasun handia baitute. Ahaztezinak direnak, eta guk gure bizi moldeetan ere senditzen ditugunak.

**Liburua CD batekin dator, istorioa Xan Errotabehereren eta Dominika Rekalten hitzetan entzuteko. Zergatik erabaki hori?**

Ikas argitaletxeak argitaratu du *Olentzero* liburua. Usu, liburuak, CD batek lagundurik pentsatuak dira. Horren bidez, hurrek ahozkoa eta irakurketa lan dezakete. Hautatu diren bi kontalariak hurren aitzi-nean ibiltzen dira, eta euskara errazki erabiltzen dute. Aurten, lkasek zenbait liburu euskara batuz eta xibereraz argitaratu ditu. Ondorioz, bai batuan eta bai xibereraz trebe ziren bi euskaldun aukeratu dituzte.

**Argitaraturiko lehen obra duzu. Nola sentitzen zara?**

Egia errateko, proiektua garatzen ari zelarik, sekulako poza sendi nuen, baina, liburua eskuetan ukaiteko mementoan, beste proiektu batean nuen burua. Beti aitzina joan behar da, ideiek ez baitute itxoiten! Izugarri kontent nagoenez, beste bat egiteko gogoia dut. Sasoi aldaketekin segiko dut, eta herensugearen inguruko ikusgarri bat landuko. Ea horrekin batera liburu ttipi bat sortzen dudan!